



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ALKATETZA DEKRETUA

JAVIER ZUBIZARRETA ZUBIZARRETA jaunak, **AZKOITIKO UDALEKO ALKATE-UDALBURUAK**, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1. h) artikuluan xedatutakoaren arabera,

IKUSIRIK

I.- 2022ko maiatzaren 13ko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendari Nagusiak enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2022 ekitaldiko diru-laguntzen deialdiari buruzko ebazpena eman zuela (2022ko maiatzaren 20ko EHAAn 97. zkian argitaratua).

Deialdiaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei laguntzak ematea, enplegua sortzeko proiektuak abian jar ditzaten. Proiektu horiek eragina izan behar dute beren jardun-eremuko lurraldearen garapen sozioekonomikoan eta modernizazioan, eta modu orekatuan eskaini behar dituzte enplegu-aukerak EAEko eskualde guztietan; betiere, 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategiarekin bat etorrita eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa beteta.

Deialdi horren azken xedea dela Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda dauden langabetuen enplegarritasuna hobetzea.

II.- 2022ko maiatzaren 13ko ebazpenaren II. Eranskinean lurralde-esparruak eta diruz lagundu daitezkeen jardueren araberrako aurrekontuaren banaketa egiten dela eta eskualdeen artean, Urola Erdia eskualderako deialdian xedaturiko jarduerak burutzeko gehieneko aurrekontua 196.556,00€koa izatea aurreikusten dela.

III.- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua 25. atalak udalerriei tokiko ekonomia- eta gizarte-garapena, eta tokiko enplegu-planak edo -politikak garatzeko eskumenen baitan, esparru material hori egikaritzeko ahalmena ematen diela aintzat hartuta, Urola Erdiko Enplegu Planaren baitan, eskualdeko gainontzeko udalerriekin batera, Azkoitiko udalak 2022ko maiatzaren 13ko enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako laguntza-deialdiari buruzko ebazpenak 2. artikulua 4. atalean diruz lagundu daitezkeen ekimenetatik, 1. motako – Enplegua sustatzea – ekimenean interesa agertu zuela.

Hori horrela, eskualdeko Enplegu Plana egin duen erakundeari horren berri eman ziola, Udalak langabeen kontrataziorako ezarritako baldintzak zehazten zituen proposamena - bost langabetu kontratazeko proposamena, hain zuzen ere, 4 balio anitzeko peoi eta administrari bat– zegozkion Proiektuetan txerta zitza.

IV.- IRAURGI BERRITZEN erakundeak UROLA EKITEN VIII deituriko 2022ko ekitaldian tokiko-enplegua sortzeko eta garapen ekonomikorako proiektua idatzita eta Azkoitiko udalak 5 langabe kontratazeko egindako proposamena aintzat hartuta, lau balio



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

anitzeko peoiak EKOBAILARA X azpi-proiektuaren baitan eta administrari bat FormaTeU XI-TIC azpi-proiektuaren baitan txertatu zituela eta LANBIDERI diru-laguntza eskaera egin zitzaioa - Azpeitiko Udalak, onuradun izaki -, horretarako ezarriko epean.

V.- 2022ko uztailaren 14an emandako Alkatetza Dekretu bidez UROLA EKITEN VIII proiektuaren eta EKOBAILARA X azpi-proiektuaren baitan, enplegua sustatzeko lehenengo fasearen deialdia egin zela, 2 balio anitzeko peoi kontratatzeko. Hautaketa burututa, 2022ko uztailaren 28ko Alkatetza Dekretu bidez, bi pertsona langabe balio anitzeko peoi gisa kontratatzea ebatzi zela.

KONTUAN HARTURIK

I.- Enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntza deialdiaren babesean egindako diru-laguntza eskaerari erantzunez, LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea aktibatuzko Zuzendariak 2022ko irailaren 7an emandako ebazpena jaso duela Azpeitiko udalak, onuradun izaki.

Ebazpenak II. Eranskinean, aipatu Diru-laguntza eskaeraren baitan sarturiko Proiektua eta udalerrika eskaturiko lanpostuak, kontratu kopuruak, lanaldia eta iraupena jasotzen dituen taula jasotzen duela, 1. Motako – Enplegua sustatzea – ekimenari dagokionean Urola Ekiten VIII proiektuan sartu direnak hain zuzen ere; horien artean, Azkoitiko udalak EKOBAILARA X azpi-proiektuaren baitan 4 langabe %100 lanaldian eta 6 hilabeterako eta FORMA TEU XI – TICS azpi-proiektuaren baitan langabe 1 %100 lanaldian eta 6 hilabeterako.

Aintzat hartuta 2022ko uztailaren 14ko Alkatetza Dekretu bidez, UROLA EKITEN VIII proiektuaren eta EKOBAILARA X azpi-proiektuaren baitan, 2 balio anitzeko peoi kontratatzeko deialdia egitea onartu zela lehenengo fase gisa. Hori horrela, Alkatetza honek udalaren lan-eskaintzaren bigarren fasea – 5etik 2 langabe kontratatzeko prozesua abian jarri eta kontratazioarekin hastea agindu duela.

II.- Behin eskaera onartuta, kontratazioak abian jartzeko dagozkion izapideak egin behar direla. Azkoitiko udalaren kontratazioak, Enplegua sustatzeko – 1 motako – ekintzen baitakoak izaki, diru-laguntzen deialdiaren 4.1.1. atalak ondokoa xedatzen duela: ***“...Esandako kontratazioak tokian-tokian sustatuko dira, eta toki-erakundeek edo haien mendeko erakundeek egingo dituzte zuzenean; bestela, zailtasun bereziak dituzten pertsonak gizarteratzen eta laneratzen diharduten irabazi-asmorik gabeko erakundeek, betiere EAEko hirugarren sektore sozialekoak badira (Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean arautua), eta haiekin proiektua gauzatzea hitzartzen bada edota proiektua kontratu bidez haiei esleitzen bazaie.*”**



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 29. Artikulua 3. Apartatuan ezarritakoarekin bat etorritik, hirugarrenekin hitzartutako jarduera, zeina %100koa izan ahal izango baita, dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 20tik gorakoa bada eta zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Laneratzea Aktibatze Zuzendaritzak baimendu egin beharko du aurreko paragrafoan aipatutako hitzarmena edo kontratua, berau izenpetu aurretik.

Edonola ere, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeatuko ditu enplegu-eskaintzak.

III.- Kontratazioak egiteko enplegu-eskaintza eskaera, bigarren fasearenak, 2022ko urriaren 24an egin direla eta Azpeitiko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura igorri direla, horrek lan-eskaintza eskaerak erregistratu, dagokion zabalkundea eman, lan-eskaerak kudeatu eta aurre-hautaketa egin dezan.

IV.- Lan-eskaintzen eskaeren kudeaketa eta hautagaien aurre-hautaketa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren egitekoa izango bada ere, Azkoitiko udaleko kontratatuak izango direnez, udalak aipatu kontratazioak egiteko deialdia egingo duela Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin batera, kontratazioari ahalik eta zabalkunde handiena emateko xedez, betiere, aipatu diru-laguntzen deialdia arautzen duen 2022ko maiatzaren 13ko ebazpenaren **13. artikulua xedaturikoa betez; zera, diru-laguntza jasoko duten erakunde onuradunek espresuki adierazi beharko dutela kontratazio horiek, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren babesa jaso dutela.**

Beraz, honako hau

EBATZI DUT

LEHENA.- Azkoitiko udalak, UROLA EKITEN VIII proiektuaren eta EKOBAILARA X azpi-proiektuaren baitan, enplegua sustatzeko (1. motako jarduera), bigarrenengo fasean, 2 balio anitzeko peoi (biak 6 hilabeterako eta %100 lanaldian) – kontratatze **deialdia** egitea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin batera.

BIGARRENA.- Hautagaiek bete beharreko baldintzak eta lanpostuen ezaugarriak jasotzen dituen dokumentua onartzea, ebazpen honi erantzen zaizkionak.

HIRUGARRENA.- Deialdiari dagokion zabalkundea ematea, Udaleko web orrian lan eskaintza atalean, berrien atalean, komunikabide desberdinetan eta *Urolanprest*-en, **betiere enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2022ko diru-laguntzen deialdia onartzen duen 2022ko maiatzaren 13ko ebazpenaren 13. artikulua xedaturikoa betez; zera, diru-laguntza jasoko duten erakunde onuradunek espresuki adierazi beharko dutela kontratazio horiek, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren babesa jaso dutela.**



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

LAUGARRENA.- Hautagaien zerrenda, LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez osatuko da, erakunde horrek egingo duelarik aurre-hautaketa, ezarritako ezaugarri eta baldintzak aintzat hartuz.

BOSGARRENA.- Aurre-hautaketa eginda, udalak dagokion hautaketa egingo du, horretarako ondoko Epaimahai kalifikatzailea eratuko delarik:

- Epaimahaiburua: Kontratazio eta Pertsonaleko A.O.T.
- Epaimahaikideak:
 1. Hirigintza, Obrak, Zerbitzuak eta Garapen Iraunkorra Saileko teknikari bat.
 2. Ongizate Saileko teknikari bat.
 3. Lantaldeko Arduraduna.
 4. Kontu-hartzailea edo Kontu-hartzaitzako teknikari bat.
- Epaimahaiko Idazkaria: Idazkaritza Saileko Erdi mailako Teknikaria

****Deialdiaren oinarrietan xedaturikoaren arabera, hautaketa prozesuan, Epaimahaikideen artean, gutxienez emakume bat egon beharko dela xedatzen du.

SEIGARRENA.- Erabaki honen berri Kontu-hartzaitza sailari ematea.

Erabaki hau finkoa da eta amaiera jarri dio administrazio-bideari.

ERREKURTSOAK

Bere aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, birjarpen errekurtsoa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, birjarpen helegitea aurkeztu ordez, edo aipatu errekurtsoarean erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Bestaldetik, Administrazioak birjarpen errekurtsoa erantzun gabe utziko balu, interesdunak sei hilabeteko epea izango du administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko, birjarpen errekurtsoa tartekatuz datatik kontatzen hasita.

Agindu eta izenpetzen duena Alkate-Udalburu jaunak, eta nik, Idazkari naizen honek ziurtatua.

ALKATE-UDALBURUAK



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

**Nire aurrean,
UDAL-IDAZKARIAK,**